

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MUTRIKUKO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko martxoaren 22an egindako bilkuran Mutrikuko udalerriko basoak zaindu, hobetu eta ugartzeko dirulaguntzak emateko programa arautzeko 2023 ekitaldiari dagozkion oinarriak onartu zituen.

Kontuan harturik adierazitako oinarriak, dirulaguntza honi dagokion deialdia burutzen da eskariak aurkezteko epea irekiz.

Mutriku, 2023ko martxoaren 23a.—Alkatea. (2239)

Basoak zaindu, hobetu eta ugartzeko dirulaguntza deialdia.

ATARIKOA

Pinuaren aurka egin duen banda marroiaren gaixotasuna helztearekin batera gure paisaiaren eraldaketa handia sortu zen, ohizkoak ziren zuhaitzez betetako mendi magalak zurituta eta lurra agerian ikusteraino.

Zuhaiztiak horrenbestean gutxitzeak paisaiaren eraldaketa ez ezik arriskuak ere ekarri ditu deforestazioari lotuta. Lurraren higadura handia arrisku horietako bat izan daiteke, lurrazalaren gaineko geruza garrantzitsua galtzea eta, ondorioz, inguruetako bioaniztasunaren galera ere ekar dezakeena.

Arrisku horiek ekiditeko modu egokienetako bat birlandaketei ekitea izan daiteke, eta horretan berebiziko garrantzia hartzen dute baso jabeen ekimenak eta erakundeen laguntasunak.

Basoak jabetza pribatuak diren arren, komunitate osoarentzako ondasun naturalak dira, eta, baso horiek klima aldaketaren aurkako borrokan deskarbonizazio lanetan gizarte osoaren Zerbitzuan jardungo dutenez, ezinbestekoa da berandu baino lehenago hastea birlandaketa ardurei heltzea.

Ildo horretatik, Mutrikuko Udalak, beste erakundeek abiatutako bidetik, baso jabeek laguntza eman nahi die herriko etorkizuneko basoak izango direnak gaur has daitezten landatzen.

Hortaz, Mutrikuko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiak basoak zaindu, hobetu eta ugartzeko helburuarekin urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren osagarri izango den dirulaguntza deialdi berri bat egin nahi du, Mutrikuko basoetan egiten diren landaketak eta mantenu lanak diruz laguntzeko.

1. Xedea.

Dirulaguntza lerro honen xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko basoak zaindu, hobetu eta ugartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako 2022ko dirulaguntzen deialdian onuradun izan diren Mutrikuko baso jabeek eskuratutako laguntza osatzea da.

2. Onuradunak.

1. Laguntzak Mutrikun kokatutako baso eta baso azalere-tarako emango dira. Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte

AYUNTAMIENTO DE MUTRIKU

Anuncio

La Junta de Gobierno Local, en sesión de fecha 22 de marzo de 2023, aprobó las bases reguladoras del programa de ayudas para la conservación, mejora y forestación de los bosques de Mutriku correspondiente al ejercicio 2023.

Considerando dichas bases, se realiza la convocatoria de estas subvenciones, disponiendo el plazo para la presentación de solicitudes.

Mutriku, a 23 de marzo de 2022.—El alcalde. (2239)

Convocatoria de subvenciones para la conservación, mejora y forestación de los bosques.

PREÁMBULO

Con la llegada de la enfermedad de la banda marrón que ha atacado al pino, surgió una gran transformación de nuestro paisaje, despejando las laderas cargadas de árboles típicos y haciendo visible el terreno.

Esta reducción de la masa arbolada no sólo ha supuesto una alteración del paisaje, sino que también ha generado riesgos asociados a la deforestación. La fuerte erosión del suelo puede ser uno de estos riesgos, que puede suponer la pérdida de una importante capa superficial y, en consecuencia, la pérdida de biodiversidad de las inmediaciones.

Una de las formas más adecuadas para evitar estos riesgos puede ser la revegetación, en la que cobra especial importancia la iniciativa de los propietarios forestales y el apoyo institucional.

Aunque los bosques son propiedad privada, son bienes naturales para toda la comunidad y, dado que van a estar al servicio de toda la sociedad en labores de descarbonización en la lucha contra el cambio climático, es necesario que empiecen a asumir las responsabilidades de replantación más pronto que tarde.

En este sentido, el Ayuntamiento de Mutriku, por el camino iniciado por otras instituciones, quiere ayudar a los propietarios forestales a que los futuros bosques de la localidad comiencen a plantarse hoy.

El Ayuntamiento de Mutriku pretende, por tanto, realizar una nueva convocatoria de ayudas complementaria a la convocatoria anual de ayudas a la conservación, mejora y ampliación de los bosques de la Diputación Foral de Gipuzkoa, para subvencionar las plantaciones y labores de mantenimiento de los bosques de Mutriku.

1. Objeto.

El objeto de estas subvenciones es complementar la ayuda obtenida por los propietarios forestales de Mutriku beneficiarios en la convocatoria 2022 de ayudas para la conservación, mejora y ampliación de los bosques del Territorio Histórico de Gipuzkoa realizada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Beneficiarios.

1. Las ayudas se concederán para superficies forestales ubicadas en el término municipal de Mutriku. Podrán ser bene-

Gipuzkoako Foru Aldundiko 2022 deialdiko dirulaguntzaren (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2022ko apirilaren 19a, 72 zk.) onuradunak izandakoak.

2. Era berean, landaketarik egin gabeko lursailetan hazita-ko espezie autoktonoen mantenua egiten dutenak ere onuradun izango dira.

3. *Laguntza lerroa eta baldintzak.*

Dirulaguntza honek Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako dirulaguntza osatzea du helburu, hala Mutrikuko lursailetan landaketak eta hauetan egiten diren mantenu lanak lagunduko dira.

Dirulaguntza eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaren deialdian onuradun izan direla justifikatzea.

2. Deialdi honetako 2.2. atalean aurreikusitako onuradunek 7. atalean zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

3. Mutrikuko Udalarekiko zorrik ez izatea.

4. Eskaera bakarra onartuko da ustialeku bakoitzeko.

4. *Dirulaguntzaren izaera.*

Laguntza lerro hau bateragarria izango da beste Administrazioak martxan jarri ditzaketan laguntzekin, hala, Gipuzkoako Foru Aldundiko 2022 deialdiko dirulaguntzaren (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2022ko apirilaren 19a, 72 zk.) onuraduna izatea da lehen baldintza. Baina ezin izango da egindako inbertsoaren % 100a baino gehiago eskuratu dirulaguntza hauen bitartez. Halakorik gertatuz gero, 38/2003 Dirulaguntzen araudiak aurreikusten duen itzulera prozedura martxan jarriko da.

5. *Dirulaguntzak emateko irizpideak.*

Mutrikuko araudiari jarraiki, landaketak onartzen diren guzietan:

1. Landaketa diruz lagunduko da egindako inbertsoaren % 100era iritsi arte. Laguntza honetatik kanpo geratuko dira eukaliptoaren eta espezie inbaditzaileen landaketak.

2. Landaketa guztien mantenu lanak (itxitura eta desbrozea), egindako inbertsoaren % 100era iritsi arte diruz lagunduko dira. Baina, laguntza honetatik kanpo geratuko dira eukalipto eta espezie inbaditzaileak landatutako sailetakoa.

2.1. Landaketarik egin gabeko lursailetan hazitako espezie autoktonoak dituzten sailen mantenu lanetan egindako inbertsoaren gehienez % 35ean diruz lagunduko dira. Egoera hau ematen denean (7. atalean zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da).

Ezin izango da inola ere egindako inbertsoaren % 100 baino gehiago eskuratu dirulaguntza hauen bitartez.

Mantenu lanak lehenengo 5 urteetan bakarrik lagunduko dira, eta urtero egindako inbertsoaren arabera kalkulatu da dirulaguntzaren kopurua. Itxituren kasuan, landaketaren urtean eta hurrengo bi urteetan diruz lagunduko dira; basa animalien kalteak baldin badaude, babesleak 5. urterarte lagunduko dira. Landareen babesleak gutxienez 1,2 m altuerakoak izan beharko dira (txikiagoak ez dira diruz lagunduko).

6. *Aurrekontuko kreditua eta dirulaguntzaren ordainketa.*

Dirulaguntza honetara bideratutako diru-kopurua urteko aurrekontuetan helburu horretarako zehazturiko lerroan adieraziko da. Kopuru hau dauden eskera guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, modu proportzionalean banatuko da.

Eskaera egin eta dirulaguntzaren helburu eta baldintzak betetzen direla egiaztatu bezain pronto egingo da dirulaguntzaren ordainketa.

ficiarios de estas subvenciones los beneficiarios de la subvención correspondiente a la convocatoria 2022 de la Diputación Foral de Gipuzkoa (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 72 de 19 de abril de 2022).

2. Igualmente serán beneficiarios los que realicen trabajos de mantenimiento de especies autóctonas que crezcan en terrenos sin plantación.

3. *Línea de ayuda y condiciones.*

El objeto de esta subvención es complementar la ayuda concedida por la Diputación Foral de Gipuzkoa, subvencionando las plantaciones y el mantenimiento de las parcelas de Mutriku.

Requisitos de las personas solicitantes para ser subvencionadas:

1. Justificar su condición de beneficiario en la convocatoria de subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Las personas beneficiarias previstas en el apartado 2.2 de esta convocatoria deberán presentar la documentación especificada en el artículo 7.

3. No tener deudas contraídas con el Ayuntamiento de Mutriku.

4. Se admitirá una única solicitud por explotación.

4. *Carácter de la subvención.*

Esta línea de ayudas será compatible con las que puedan poner en marcha otras Administraciones, siendo la primera condición ser beneficiario de la subvención de la convocatoria 2022 de la Diputación Foral de Gipuzkoa (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 72 de 19 de abril de 2022). Sin embargo, estas subvenciones no podrán superar el 100 % del total invertido. En tal caso, se iniciará el correspondiente procedimiento de reintegro previsto en la normativa de subvenciones 38/2003.

5. *Criterios de adjudicación de las subvenciones.*

De acuerdo con la normativa de Mutriku, en las zonas donde se admitan plantaciones:

1. Se subvencionará la plantación hasta alcanzar el 100 % de la inversión realizada. Quedan excluidas de esta ayuda las plantaciones de eucalipto y especies invasoras.

2. Se subvencionarán los trabajos de mantenimiento de todas las plantaciones (cerramiento y desbroce) hasta alcanzar el 100 % de la inversión realizada. Quedan excluidos de esta ayuda el eucalipto y las plantaciones de especies invasoras.

2.1. Se subvencionará hasta un máximo del 35 % de la inversión en trabajos de mantenimiento de especies autóctonas que crezcan en terrenos sin plantación. Cuando se dé esta situación (se deberá aportar la documentación especificada en el apartado 7).

En ningún caso se podrá alcanzar más del 100 % de la inversión realizada mediante estas subvenciones.

Las labores de mantenimiento se subvencionarán únicamente durante los 5 primeros años, y la cuantía de la subvención se calculará en función de la inversión anual realizada. En el caso de cierres, se subvencionarán durante el año de plantación y los dos años siguientes; en caso de daños de animales silvestres, las protecciones se subvencionarán hasta el 5.º año. Los protectores de las plantas deberán ser al menos 1,2 m de altura (menores no serán subvencionables).

6. *Crédito presupuestario y pago de la subvención.*

La cantidad destinada a esta subvención se reflejará en la línea que al efecto se establezca en los presupuestos anuales. Si esta cantidad no fuera suficiente para atender todas las solicitudes existentes, se repartirá proporcionalmente.

El pago de la subvención se realizará una vez verificado el cumplimiento de los objetivos y condiciones de la subvención.

7. Eskarien aurkezpena eta tramitazioa.

Dirulaguntza eskaera egiteko agiri normalizatu bidez egingo da, zeina Udaleko bulego orokorretan eta web orrian egongo den eskuragai.

Eskaerarekin batera, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

1. Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztutako dokumentazioa (egingo den jardueraren proiektua, inbertsioaren kostua, fakturak ...).

2. Gipuzkoako Foru Aldundian dirulaguntza onartu zaionaren ziurtagiria, eta honen zerbatekoa.

3. 2.2 atalean aurreikusitako onuradunek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

a. Ustiategiari buruzko datuak.

b. Aurrekontu sinatua:

i. Itxiturak egiteko material guztien fakturak (sare, txarrantxa, babesle,...) aurkeztu behar dira, eta bertan materialen ezagarrak eta neurriak azaldu behar dira.

ii. Garbiketa kanpoko enpresa batekin egiten bada, haiek emititutako faktura. Aldiz, eskatzaileak burutzen badu garbiketa, erabilitako materialen faktura.

c. Lur zatien planoak.

8. Eskariak aurkezteko epea.

Eskabideak deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Mutrikuko webgunean argitaratutako egunaren biharamunetik hasita aurkeztu ahal izango dira 15 laneguneko epean.

Oro har, onuradunek dirulaguntzen udal-ordenantzan, 38/2003 Legean eta aplikatu beharreko gainerako araudian eskatutako baldintzak bete beharko dituzte.

9. Gauzatzea eta proposamena.

Udaleko Hirigintza sailak burutuko ditu diru-laguntzen kudeaketa lanak eta ebazpen-proposamenak prestatuko ditu.

Dirulaguntzaren esleipena Alkatearen ebazpen bidez onartuko da.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 41.1 artikulua araberak; betiere emandako dirulaguntzak Udalaren webgunean argitaratzeko aukera baztertu gabe.

Emandako dirulaguntzaren ordainketa bakoitza banku-transferentzia bidez egingo da, erakunde edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

10. Oinarriak ez betetzea.

Onuradunak Oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza ez betetzeak dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Ordurako dirulaguntzaren zati bat jasoa izanez gero, hori itzuli egin beharko du, eta dagozkion atzerapen interesak eskatu ahal izango zaizkio.

Mutrikuko Udalak eskaera egileari datu edo inguruabarrak egiaztatzeko beharrezko iruditzen zaizkion agiri edo justifikazioak eskatu ahal izango ditu.

11. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauetan jasotzen ez den guztiari Mutrikuko Udalak Emandako Dirulaguntzak Kudeatzeko Ordenantza Orokorra, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa eta indarrean dauden gainerako arauak aplikatuko zaizkio.

7. Presentación y tramitación de solicitudes.

La solicitud de subvención deberá realizarse mediante el modelo normalizado de solicitud que estará disponible en las oficinas generales del Ayuntamiento y en su página web.

La solicitud deberá ir acompañada de los siguientes documentos:

1. Documentación presentada ante la Diputación Foral de Gipuzkoa (proyecto de la actividad a realizar, coste de la inversión, facturas).

2. Certificado de aceptación de la subvención en la Diputación Foral de Gipuzkoa e importe de la misma.

3. Los beneficiarios previstos en el apartado 2.2 deberán presentar la siguiente documentación:

a. Datos de la explotación.

b. Presupuesto firmado:

i. Se deberán presentar facturas de todos los materiales (malla, arriostamiento, protector, ...) para la realización de los cierres, explicando sus características y dimensiones.

ii. Si la limpieza se realiza con una empresa externa, factura emitida por la misma. Si, por el contrario, el solicitante realiza la limpieza, factura de los materiales utilizados.

c. Plano parcelario.

8. Plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web de Mutriku.

Con carácter general, los beneficiarios deberán cumplir los requisitos exigidos en la Ordenanza municipal de subvenciones, Ley 38/2003 y demás normativa aplicable.

9. Ejecución y propuesta.

Corresponderá al departamento municipal de urbanismo la realización de las tareas de gestión de las subvenciones y la elaboración de las propuestas de resolución.

La adjudicación de la subvención se aprobará mediante Resolución de Alcaldía.

La resolución del procedimiento será notificada individualmente a las personas interesadas, de conformidad con el artículo 41.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sin perjuicio de la publicación en la página web municipal de las subvenciones concedidas.

Cada abono de la subvención concedida se realizará mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente indicada por la entidad o persona beneficiaria.

10. Incumplimiento de las bases.

El incumplimiento por parte del beneficiario de cualquiera de las condiciones establecidas en estas Bases dará lugar a la pérdida del derecho a la percepción de la subvención. En caso de que se hubiera percibido anteriormente parte de la subvención, procederá el reintegro de la misma y la exigencia de los intereses de demora correspondientes.

El Ayuntamiento de Mutriku podrá requerir al solicitante cuantos documentos o justificaciones considere necesarios para la comprobación de los datos o circunstancias.

11. Normativa aplicable.

En todo lo no previsto en estas bases será de aplicación la Ordenanza General de Gestión de las Subvenciones del Ayuntamiento de Mutriku, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y demás normativa vigente.

12. *Araudia garatzea eta exekuzioa.*

Mutrikuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak oinarri hauen garapenerako eta exekuziorako beharrezko diren xedapenak emango ditu.

12. *Desarrollo normativo y ejecución.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Mutriku dictará las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de las presentes bases.